



Conference on Quasielastic Neutron Scattering and Workshop on Inelastic Neutron Spectrometers (QENS/WINS 2021)



QENS/WINS 2021
(online) 17-21 May 2021

Mai. 17 - Mai. 21 2021

Kod. Z02-21

Mod.:

Online zuzenean

Edizioa

2021

Jarduera mota

Workshop

Data

Mai. 17 - Mai. 21 2021

Kokalekua

Online zuzenean

Hizkuntzak

Ingelesa

Balio akademikoa

50 ordu

Antolakuntza Batzordea

Azalpena

2021. urte honetan QENS konferentziaren eta WINS tailerraren online bertsioa egingo dugu 2021eko maiatzaren 17tik 21era bitarte. Online bertsio hori 2022ko maiatzaren 23tik 27ra bitarte Donostian izango den QENS/WINS 2022 aurrez aurreko konferentziaren aurreko urratsa izango da.

QENS tailerraren ardatza mugimendu atomiko eta molekularren ikerketarekin lotutako ideia zientifikoen eztabaida eta elkartrukea dira; WINS tailerraren kasuan, aldiz, neutroi kuasielastikoen eta inelastikoen dispersio tekniken alderdi instrumentalak lantzen dira. Hasieran QENS eta WINS bakoitza bere aldetik antolatzen baziren ere, biak batera egitearen balio erantsia ikusi da, neutroi kuasielastiko eta inelastikoen dispersio teknikekin lotura duen komunitate zientifikoan duen inpaktua eta irismena areagotu egiten baita.

Helburuak

QENS 2021 tailerraren helburu nagusia zera da, hainbat sistematako prozesu dinamikoen ikerketarekin lotutako jarduera zientifikoen espektro zabala estaltzea, neutroi kuasielastikoen dispersio teknikak erabilita. Berrikuntza modura, QENS tailerraren edizio honetan hainbat metodoren (teknika esperimentalak eta simulazioak ere sartuta) arteko sinergia potentzialak arakatu eta ustiatuko dira, ikerkuntzaren esparruetan sortzen diren erronka zientifikoei aurre egitearren. WINS 2021 tailerrean, neutroien tresnen diseinuaren alderdi berritzaileak bilduko dira.

Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak





Zuzendaritza



Arantxa Arbe

Centro de Física de Materiales (CFM) (CSIC-UPV/EHU)



Juan Colmenero de Leon

Centro de Física de Materiales (CFM) (CSIC-UPV/EHU)

Matrikula prezioak

REGISTRATION	2021-05-18 ARTE
Fee Waiver	0 EUR
Standard Registration	20,00 EUR

Kokalekua

Online zuzenean

Online zuzenean